







Ekusiripean ngaritutzen
dijozkidanak barak
eta aztertzen dirala noizbait
izkribatzen ez diranak,
liburu ontan jarri naitut
gogoratzen zaizkidanak,
gaur edo bigar nere semeak
ikasi ditzaten danak.

Pedro M. Otaño



V. PELLO MARI OTAÑO

BERTSO-PAPER LEHIAKETA
2018



V. PELLO MARI OTAÑO BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Bertsolaritzaren historia luzean, sortzailerik bikainenetako bat izan da Pello Mari Otaño Barriola, eta aparteko lekua merezi du. Zizurkilgo Errekalde baserrian jaio, 1857an, eta bertsolaritza giroan hazi zen Pello Mari: aitona, aita, osaba Joxe Bernardo, Bernardo anaia, Mikela amona eta Mikela arreba ere, denak maila handiko bertsolariak ziren. "Arnasarekin batera bertsoa irensten zuala kozkortu zan Pedro Mari", Aita Zavalaren hitzetan. Bertsolari handia izan zen Pello Mari. "Amuritza etorri arte, beharbada gehienik eragin duen maisua izan da Otaño bertsolaritzan", Juan Mari Lekuonaren aburuz.

Pello Esnalek zuzen asko dioen bezala, "hasieran Errekalde baserria eta Karidadeko Bentaren artean banatzen ziren haren bizipen eta ametsak. Geroxeago Donostiatik Zizurkilerako joan-etorrietan. Eta bizitzaren azken zatian Amerika eta Euskal Herriaren artean". Izan ere, hiru joan-etorri egin zituen Argentinara. Han, Santa Fe-ko Rosarion zendu zen 1910ean, bihotzekoak emanda.

Haren oroimenean, Zizurkilgo Hernandorena Kultur Elkartek "Lugarren Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketa" antolatzea erabaki du. Harituz Bertsozale Taldearen lankidetzarekin. Izan ere, Harituz Taldeak lehiaketaren aholku tekniko eta epaitze-lanak burutuko baititu.

ANTOLAKETA.

Lehiaketa lau mailatan banatzen dugu:

1. Gelen arteko maila: Lehen Hezkuntzako taldeentzat.
2. Gaztetxoen maila: 15 urte artekoentzat (2003a edo geroago jaiotakoak).
3. Gazteen maila: 18 urte artekoentzat (2000 eta 2003 urteen artean jaiotakoak).
4. Helduen maila: 1999an edo aurretik jaiotakoentzat.

LANAK.

- Gelen arteko mailan gela bakoitzak nahi adina bertsopaper bidal ditzakete. Bertsopaper bakoitzeko hiru bertso edo sei kopla idatzi beharko dira, aukeran.
- Gaztetxoen mailan parte hartzaileek nahi adina bertsopaper bidal ditzakete. Bertsopaper bakoitzeko hiru bertso edo sei kopla idatzi beharko dira, aukeran.
- Gazteen mailan parte hartzaileek nahi adina bertsopaper bidal ditzakete. Bertsopaper bakoitzeko gutxienez sei bertso idatzi beharko dira.
- Helduen mailan, parte hartzaileek nahi adina bertsopaper bidal ditzakete. Bertsopaper bakoitzeko gutxienez zortzi bertso idatzi beharko dira.

GAIA eta HIZKUNTZA.

- Maila guztietan gaia, neurria eta doinua libreak izango dira, bakoitzaren aukerakoak. Bertso guztiak euskaraz idatzitakoak izango dira.

EPEA.

Bertso-lanak 2018ko azaroaren 7a baino lehen bidali beharko dira aipatutako helbideetako batera.

HELBIDEA.

Lanak e-postaz zein paperean jasoko ditugu eta helbide hauetako batera bidali behar dira:

info@hernandorena.eus
edo
HERNANDORENA KULTUR ELKARTEA
(Pello Mari Otaño bertsopaper lehiaketa)
P.K. 22
Iriarte etxea - Pello Mari Otaño plaza,
20159 - Zizurkil

BALDINTZAK. (Guztiak bete beharrekoak)

- Bertsoak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.
- Lanak izenordez bakarrik sinatuko dira. Izenorde horrek guztiz ezezaguna izan behar du eta bertso sortaren barruan jarriko da. Paperezko kasuan, bertso sorta hori eta izenordea gutun azal batean sartuko dira. Beste gutun azal batean xehetasun guztiak adieraziko ditugu: egilearen izenordea eta izena, jaiotze-data, helbidea eta telefono-zenbakia. Azkenik, bi gutun azalak beste bakar batean sartu eta aipatutako helbidera bidaliko dira. E-postaren kasuan, berriz, bi artxibo erantsi beharko zaizkio igortzen den mezuari: bertso-sorta batetik eta gainontzeko xehetasunak bestetik.

SARIAK. Irabazleek sari hauek jasoko dituzte:

	GELEN ARTEKOA	GAZTETXOAK	GAZTEAK	HELDUAK
1. saria	Aukeratutako bertsolari baten bisita eskolara	Trofeoa eta 100€ko erosketa balea	250 €	500 €
2. saria	Mainontzi jolasa	Trofeoa eta 50€ko erosketa balea	125 €	250 €

SARI-BANAKETA.

Hernandorena K. E.a harremanetan jarriko da irabazleekin sarien berri emateko. Sari-banaketa ekitaldia 2018ko azaroaren 17an izango da. Zizurkilgo Iriarte Jatetxean egingo den bertso-afariaren aurretik banatuko dira sariak. Sariak jasotzerakoan, irabazleek beraien bertsoak kantatzeko aukera izango dute. Saridunen batek ekitaldira etortzerik ez balu saria etxera bidaliko zaio.

EPAIMAHAIA.

Epaimahai-lanak HARITUZ TOLOSALDEKO BERTSOZALE ELKARTEAK egingo ditu. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, sariren bat hutsik gera daiteke. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

LANEN JABETZA.

Lan sarituen jabetza antolatzaileen esku geratuko da. Hernandorena Kultur Elkartek eskubide osoa izango du lan horiek argitaratzeko. Egileak bere lanak argitaratzeko asmoa izango balu, Hernandorena Kultur Elkartearen baimena beharko du.

INFORMAZIO GARRANTZITSUA.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartu direla esan nahi du. Argibiderik behar izanez gero: **656743741** telefonoa edo **info@hernandorena.eus** posta-kontuan.